36ko gerran, aire gerretarako ezinbesteko tresna bihurtu zen eguraldiaren iragarpena; erasoak eguraldien menpe egon ohi ziren.

Iragarpena, eraso tresna

Ane Olaizola Donostia

Durangoko (Bizkaia) bonbardaketaz geroztik, 1937. urteko martxoaren 31n, bando nazionalak Bizkaiko mendebaldeko herriak menderatzea nahi zuen. Baina apirilean behe laino ugari egoten denez, ezinezkoa zitzaien airez erasotzea. Izan ere, Gasteizen hegazkina hartu eta Bizkaiko kostara iristen zirenean, ikusmenik gabe gelditzen ziren; beraz, ezin zituzten herriak bonbardatu. Ondorioz, Igeldoko eguraldi behatokiari eguneroko iragarpenak Burgosera (Espainia) bidaltzeko eskatu zioten. Behin eguraldiaren iragarpena eskuartean izanda, hegazkinak zer ordutan irten zitezkeen bazekiten, eta astebete geroago, 1937. urteko apirilaren 26an Gernika airez bonbardatu zuten». Hala dio Margarita Martinek, Euskal Herriko Meteorologia Zentroko zuzendariak.

Donostiako Igeldoko eguraldi behatokia 1905. urtetik ari da eguraldi iragarpenak egiten, baina historia luzea du atzetik, eta historia horren zati garrantzitsu bat 2004. urtera arte ezkutuan egon zen, Margarita Martinek 1927tik 1937ra bitarteko Igeldoko behatokiko dokumentu sortarekin topo egin zuen arte; «1927. urtetik 1936. urtera arteko gutun guztiak, epe horietan erositako tresneria guztien fakturak eta urtarrilaren batetik 1937. urteko abendura arte egin ziren mapa guztiak zeuden dokumentu horietan». Horien artean zeuden, beraz, besteak beste, Gernika bonbardatu zuten eguneko eguraldi iragarpena eta bando nazionalak Donostia menperatu zuten egunekoa.

36ko gerran eguraldiaren iragarpenek izugarrizko garrantzia zuten Euskal Herriko gerra estrategian; 1937. urteko apirilaren 26ko eguraldi iragarpenaren arabera, goizean behe lainoa zegoen, baina 15:00 aldera lainoak joan ziren, eta ordubete geroago hegazkinak irten ziren, Gernikara bidean.

> 1937. urteaz geroztik, behatokiko helburu bakarra operazio militarrei laguntzea zen»

> «Eguraldien iragarpena izanda, bazekiten hegazkinek noiz irten zitezkeen»
>
> **MARGARITA MARTIN**
> Euskal Herriko Meteorologia Zentroa

1936. urteko irailaren 13an, bando nazionalak Donostia menperatu zuen, eta Igeldoko behatokia izan zen hartu zuten lehenengotako tokia, gerrako estrategietarako erreminta garrantzitsua baitzen; ordutik aurrera, behatokiak zuen helburu bakarra operazio militarrei laguntzea izan zen: «Garai horietan hegazkin guztietako pilotuek ikusmenaren bidez egin behar zuten lan osoa, tresneriarik ez baitzegoen horretarako. Beraz, aireratzen eta lurreratzearen orduan, ikuspen datuak, lainoen altueraren datuak eta presio datuak jakitea ezinbestekoa zen, eta horregatik zeukaten horrenbesteko garrantzia eguraldi iragarpenek. Lurreko gerran, datu horiek ez dira garrantzitsuak, baina aireko gerran beharbeharrezkoak dira. Eta hemen egin zen gerra, batik bat, airekoa izan zen; armarik garrantzitsuena hegazkinak ziren».



Gernikako bonbardaketa eguneko eguraldi iragarpena; behean, Bizkaiko datuak, eskuz idatzita. BERRIA

Dokumentuak 1938. urtean ezkutatu baziren ere, gaur egunera arte ez dira ireki. «Gerrako memoria lurperatzea erabaki zuten, besteak beste hainbat pertsona inplikatuta zeudelako. Azken finean, dokumentuak irekitzeko zain zeuden; bestela, dokumentuak bota egingo zituzten. Baina, beste alde batetik, ez ziren ausartzen argitara eramaten. Izan ere, gerretan pertsona asko euren printzipioen aurka joaten dira. Ordutik urte asko pasata, dokumentu horiek irekitzeko eskatu zidaten, besteak beste, behatokiko zuzendaria nintzelako eta ez neramalako denbora asko bertan», dio Martinek.